



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko urtarrilaren 28a

11. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### C SAILA:

##### **Bestelako proposamenak:**

—Lege proposamena, hein batean aldatzen dituen Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa. Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidetik ibilgailu astunen zirkulazioa murrizteko edo mugatzeko har litezkeen neurriak azter ditzan. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 142/2004 Foru Dekretua alda dezan, gure erkidegoko etxebizitza-premia berriei erantzuteko. Jorge Esparza Garrido jaunak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zain dezan betetzen direla Espainiako Konstituzioaren 27.1 artikulua –“denek dute hezkuntzarako eskubidea”– eta 27.2 artikulua –“hezkuntzaren helburua pertsonaren nortasuna osotara garatzea izango da, bizikidetzaren printzipio demokratikoen errespetuan eta oinarritzko eskubide eta askatasunen errespetuan”. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da indartu dezan ospitaleratuta dauden edo etxeko arreta behar duten ikasleei laguntza emateko programa, 3tik 6 urtera bitarteko zikloa barne. Hezkuntza Batzordeak onetsia (9. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lantalde misto bat sor dezan enpresa eta pertsona ekintzaileei beren jarduera ezartzeko eta garatzeko erraztasunak emanen dizkieten neurriak diseinatzeko aldera. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak onetsia (9. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, erretzeari uzteko tratamenduan vareziklina kostuarekiko eraginkorren den aukera gisa finantzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

- Galdera, erizaintzako azken Lan Eskaintza Publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Erriberan dagoen helduentzako euskara-ikastaroen eskaintzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Lantaldea, jarduera ekintzaileak abiarazteko administrazio-prozesuak arindu eta hobetzeko. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak ezetsi egin du (15. or.).
- Mahaiaren 2020ko urtarrilaren 20ko erabakia, datu-babesari buruzkoa (15. or.).

---

**C saila:**  
**BESTELAKO PROPOSAMENAK**

---

**Lege proposamena, hein batean aldatzen dituen Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa.**

*LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138.3 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsitako irizpena, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa hein batean aldatzen dituen Lege proposamenari buruzkoa. Proposamen hori 2019ko irailaren 20ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**IRIZPENA**

Lurralde Kohesiorako Batzordeak 2020ko 15ean eta 16an egindako bileran onetsia.

**Lege proposamena, hein batean aldatzen dituen Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoa eta Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoa**

**ZIOEN AZALPENA**

Hauteskuendeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 193. artikulua 2. apartatuak hauteskunde-gastuaren muga arautzen du, halako moduan non muga hori izanen baita "alderdi, federazio, koalizio edo elkarre bakoitzak bere zerrendak aurkezten dituen barrutietako zuzenbideko populazioei dagokien biztanle-muga bider 0,11 euro egitetik ateratzen dena".

Jarraian, 2. apartatu horretan arautzen da probintzia-osagarria, barruti bakar batean aurkezten diren formazio politiko txikiek balia ezin dezaketena. Muga horren aplikaziotik ateratzen diren zenbatekoak ez dira inondik ere aski hauteskunde-kanpaina bat egiteko –Kontuen Auzitegiak berak 2015eko Tokik Hauteskuendeen Kontabilitatearen Fiskalizazio-txostenean adierazi duen legez–; halatan, zenbateko horiek, batzuetan, txikiagoak izan ohi dira kasuan kasuko toki korporazioan ordezkari izan ohi diren gero formazio politikoek hauteskunde-gastuengatik lor litzaketan dirulaguntzak baino. Horri gehitu behar zaizkio gehiegizko hauteskunde-gastuak izan ditzakeen ondorioak; izan ere, arau-hauste zehagarri gisa tipifikaturik ageri da Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoan.

Horren egungo testuan, % 10 baino gehiagoko gaitzakeriaz ere 50.000 euroko zehapena ekar dezake. Egungo araubideak dakarren egoera zuzentzeko, beharrezkoa izanen litzateke bermatzea hauteskunde-gastuaren mugak ahalbidetu egiten duela gutxieneko hauteskunde-kanpaina bat egitea.

Bestalde, Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. artikulua bigarren, hirugarren eta laugarren –b letran– apartatuetan arau-hauste oso larri, larri eta arin gisa tipifikatzen dira, hurrenez hurren, alderdi politikoek Hauteskuendeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan ezarrita dauden hauteskunde-gastuen mugak gaitzakeriaz, gaitzakeriazko ehunekoaren arabera. 17. bis artikulua, berriz, arau-hauste horiei dagokien zehapenak ezartzen ditu, halako moduan non kasu guztietan gutxieneko zehapen bat ezartzen baita, 50.000, 25.000 edo 5.000 eurokoa, gaitzakeriazko arau-hauste oso larria, larria

edo arina izatearen arabera, nahiz eta hauteskunde-gastuaren muga gainditzeari buruz hasiera batez ezartzen den zehapena izan hauteskunde-gastuaren mugaren gaindikinaren halako bitik halako bostera bitartekoa.

Kontuen Auzitegiak izapidetutako zehapen-prozedurekin azkenaldi honetan izandako esperientziak agerian uzten du ezen, herri bakar batean lehiatzen diren formazio politiko txikien kasuan, gaindikin oso txiki batek 50.000 euroko zehapen neurrigabea ekar dezakeela, aplikatzea zaien hauteskunde-gasturako mugaren ondorioz.

Horregatik guztiagatik, proposatzen da aldatzea bai Hauteskundearen Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 193. artikulua bai Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua, azken horren kasuan kenduz ezarri beharreko gutxieneko zehapena.

Ekidite aldera hauteskunde-gastuaren mugari buruzko egungo araudiaren ondorioz apirilaren 1eko 209/2019 Errege Dekretuaren bidez deitutako udal hauteskundeetan hautagaitza barruti bakarrean aurkeztuz parte hartu duten alderdi politiko txikiei zehapen-espeditente berriak ireki eta zehapen neurrigabeak ezar dakizkien, proposatzen da aldi baterako xedapen bat sartzea, halako moduan non lege honetan ezarritako aldaketak aplikatzen ahal izanen baitzaizkie alderdi politiko horiei.

### **1. artikulua.**

Hauteskundearen Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 193. artikuluko 2. apartatuaren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

«2. Udal-hauteskundeetan, hauteskunde-gastuen muga izanen da alderdi, federazio, koalizio edo elkarte bakoitzak bere hautagaitzak aurkeztzen dituen barrutietako zuzenbideko populazioei dagokien biztanle-muga bider 0,11 euro egitetik atera-

tzen dena, 20.000 biztanletik gorako udalerrietan, eta bider 0,22 euro, 20.000 biztanletik beherako udalerrietan.

Probintzia bakoitzeko, hauteskundeetan gutxienez ere hartako udalen 100eko 25ean aurkeztutako direnek beste 150.301,11 euro gastatzen ahal izanen dituzte baldintza hori betetzen duten probintzietako bakoitzeko».

### **2. artikulua.**

1. Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua lehena apartatuaren azken paragrafoaren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

«a) apartatuan aurreikusitako zehapenak ez dira inolaz ere izanen berrogeita hamar mila euro baino gutxiagokoak».

2. Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua bigarren apartatuaren b) letraren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

«b) 17. artikulua bigarren apartatuaren b) letran aurreikusitako arau-hausteen kasuan, egindako gastu-gaindikinaren halako bitik halako bostera bitarteko zenbatekoa duen zehapena».

3. Alderdi Politikoen Finantzaketari buruzko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 17. bis artikulua hirugarren apartatuaren b) letraren testua honako hau izanen da hemendik aurrera:

«b) 17. artikulua hirugarren apartatuaren b) letran aurreikusitako arau-hausteen kasuan, egindako gastu-gaindikinaren halako bitik halako bostera bitarteko zenbatekoa duen zehapena».

### **Xedapen iragankor bakarra.**

Lege honetan jasotzen diren aldaketak aplikatuko zaizkie apirilaren 1eko 209/2019 Errege Dekretuaren bidez deitutako udal hauteskundeetan hautagaitza barruti bakarrean aurkeztuz parte hartu duten alderdi politikoei.

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-A errepidetik ibilgailu astunen zirkulazioa murrizteko edo mugatzeko har litezkeen neurriak azter ditzan.**

*BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita N-121-A errepidetik ibilgailu astunen zirkulazioa murrizteko edo mugatzeko har litezkeen neurriak azter ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Iruña eta Behobia arteko N-121-A errepidea 62,87 kilometro luze da. Errepide hori Europako errepide sarean dago, eta Iruña eta Frantzia lotzen ditu, Irundik igarota.

Iruñetik abiatzen da –Ezkaako tunelean, 5+670 kilometro puntuan–, eta Beran bukatzen da –Gipuzkoako muga, 68+540 kilometro puntuan–.

Errepide hori da Iruña eta Frantziako muga errepide bidez lotzen dituen; hori dela-eta, errepidearen erabiltzaileetako asko bidaia luzeak egi-

ten dituztenak dira, mugatik edo mugarantz salgaiak eramaten dituzten ibilgailu astunak.

Eguneroko batez besteko intentsitatea (eguneko zenbat ibilgailu) 9.500 ibilgailutik gorakoa da errepide horretan, eta errepide-tarte batzuetan % 30 ingurukoa da ibilgailu astunen portzentajea; hau da, batez beste 2.800 kamioi dira gutxi gorabehera errepide horretatik zirkulatzen dutenak.

Trafikoaren dentsitateak eta ibilgailu astunen kopuru handiak, orografia zailarekin batera (Belateko mendatea eta Bidasoaldea), zaildu egiten du zirkulazioa, gorabehera eta istripu asko egotea eragiten dute, eta horien ondorioak larriak izatea, eta, horrenbestez, kexak egoten dira etengabe.

Azken urte hauetan neurriak hartu izan dira –batik bat, kontserbazioari begira–, errepide horretako istripu-kopurua murrizteko asmoz; gure ustez, neurri horiek positiboak dira, baina ez dira aski.

Nafarroako Gobernuak aurreikusita dauka, N-121-A errepidearen funtzionamendua eta segurtasuna hobetzeko, errepidea 2+1 motakoa bilakatzeko, dauden bidegurutzak aldatuta eta sarbideak berrantolatuta.

Neurri horrek 70 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa eskatzen du ustez; horri gehitzen bazaio Belateko eta Almandozko tuneletan egin beharreko jarduketak (horiek ere N-121-A errepidean daude), 170 milioi baino gehiago behar dira egokitzapen-obra horiek egiteko.

Argi dago: lehenbailehen hartu behar dira neurriak errepide horretako istripu-kopurua murrizteko, eta horrek behartzen gaitu erabiltzaileen segurtasuna bermatuko duten beste alternatiba batzuk aztertzea.

Ibilgailu astunen zirkulazioa mugatzea edo murriztea eskatzen dute sarri erabiltzaileek, ukitutako herrietako bizilagunek nahiz udalek berek.

N-121-A errepidean ibilgailu astunen zirkulazioa mugatzeko neurri horiek ezarri ahal izateko dauden aukera juridikoak aztertze aldera, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du N-121-A errepidean ibilgailu astunen zirkulazioa murrizteko edo mugatzeko har litezkeen neurriak azter ditzan bere zerbitzu juridikoen bidez, errepide horretako segurtasuna areagotzea eta istripu-kopurua gutxitzea xede.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Blanca Regulez Álvarez

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 142/2004 Foru Dekretua alda dezan, gure erkidegoko etxebizitza-premia berriei erantzuteko.**

### *JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 142/2004 Foru Dekretua alda dezan, gure erkidegoko etxebizitza-premia berriei erantzuteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Bizigarritasunari buruzko egungo araudiak – hain zuzen ere, Nafarroako etxebizitzetan, berrietan nahiz lehendik daudenetan, bizi ahal izateko gutxienezko baldintzak arautzen dituen 142/2004 Foru Dekretuak– ez die erantzuten hiriak berri-

tzeko eta berroneratzeko egungo premiei, eta ez zaie eraikuntza-teknologia berriei egokitzen.

Hori bereziki ikusten da energia-arloko baldintzei, etxebizitza-formatu berrien beharrezan eta tipologia aldaketari nahiz lofts izenekoei dagokionez; hori dela-eta, kasurik gehienetan eragotzi egiten da beharizan horiei arazoizko konponbide bat eman ahal izatea. Problematika horri batu egiten zaizkio hiri-ehunduraren bilakaera, familia-egituren aldaketa eta etxebizitza lortzeko zailtasunak. Horregatik guztiagatik, inoiz baino beharrezkoagoa da araudi hori aldatzea. Aldaketa horrek honako hauek jaso beharko lituzke: alde zaharretan ohikoak diren lurzatietan orubeak berri ahal izatea; etxebizitza handiak zatitu eta txikiagoak egitea, argizatze, aireztatze eta aire-erazte alternatiboko konponbideak emanez; solairuen diseinu ez hain murriztaileak, eraikin finkatuetako egungo beheko solairuei egokituak; teknologia berrietara egokitzea –esaterako, Passiv sistemara–, instalazioak alferrik bikoiztu gabe; edo aginduzko bizigarritasun-zedula lortzea beren banaketa, kokapena edo forma direla-eta gaur egun halakorik lortu ezin duten etxebizitzek.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko gehieneko epean alda dezan foru araudia –zehazki, 142/2004 Foru Dekretua–, gure erkidegoan etxebizitzari dagokionez dauden beharizan berriei lekua egiteko.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zain dezan betetzen direla Espainiako Konstituzioaren 27.1 artikulua –“denek dute hezkuntzarako eskubidea”– eta 27.2 artikulua –“hezkuntzaren helburua pertsonaren nortasuna osotara garatzea izango da, bizikidetzaren printzipio demokratikoen errespetuan eta oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetuan”.**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 27an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerria talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita zain dezan betetzen direla Espainiako Konstituzioaren 27.1 artikulua –“denek dute hezkuntzarako eskubidea”– eta 27.2 artikulua –“hezkuntzaren helburua pertsonaren nortasuna osotara garatzea izango da, bizikidetzaren printzipio demokratikoen errespetuan eta oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetuan”.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Espainiako 1978ko Konstituzioaren “Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak” izeneko I. tituluko 27.1 artikulua dioenez “denek dute hezkuntzarako eskubidea”; halaber, artikulua horrek “irakaskuntza-askatasuna” aitortzen du. Gainera, 27 artikulua, 2. apartatuak ezartzen du hezkuntzaren helburua izan dela “pertsonaren nortasuna osotara garatzea... ..bizikidetzaren

printzipio demokratikoen errespetuan eta oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetuan”. Definizio horrek zedarritu egiten du aipatu eskubidea, eta ezartzen du pertsonaren nortasuna oinarrizko dagoela osotara garatzea bizikidetzaren printzipio demokratikoen errespetuan eta oinarrizko eskubide eta askatasunen errespetuan, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak 26. artikuluan jasotzen duen bezala.

Nortasuna libreki garatzea, autonomia pertsonalaren berme gisa eta hezkuntzarako eskubidearekin lotuta, gizabanakoari laguntzen dio hautatzeko askatasun pertsonal eta benetakoa edukitzea, bizitzak dakartzkion erronkei begira. Askatasunak bereiztea ahalbidetzen du, eta pertsonaren nortasuna osotara garatzea ez da beteko oso lotuta ez badago, ikaslearen eta herritarren aldetik, espiritu kritikoren garapenarekin, zeina beharrezkoa baita aipatu 27. artikulua egoki garatzeko.

Baina espiritu kritikoa eraikitzerakoan oztipoa izan daiteke prestakuntza akastun eta osatugabea, errealitatea ez ezagutzea eta desitxuratzea eta pentsamendua faltsukeriak errepikatzearen poderioz manipulatzeko. Horri doktrinamendua deitzen ahal diogu, alegia, ideia edo sinesmen jakin batzuk sustatzea errealitatea atzematen den modua desitxuratuz eta pentsamendua ideologia edo pentsamolde jakin batzuetara bideratuz.

Zoritxarrez, eskola doktrinamendurako foku bihurtu da eskuinarentzat, saiatzen ari baita eredu kontserbadore eta partzial bat ezartzen, zeinetan hezkuntza-curriculuma mugatzen baita egokitzen dituzten edukietara, bazter utziz errealitate sozial eta are historiko batzuk ere, eta bilatzen baitu hezkuntzaren kontrol eta zentralismo handiagoa sartzeko hezkuntza prozesuetan.

Hezkuntza prozesu aktiboa da, eta hartan sentimendua eta ideologia ezberdinetako irakasleek parte hartzen dute. Haren aberastasuna da esperientzia, gai eta irakasgai anitzak eskaintzea,

ikuspegi ezberdinak eduki ahal dituztenak eta, beraz, ikasleengan pentsamendua sorraraz dezaketanak. Filosofia, historia, erlijioa, literatura, artea, zientziak, balioen irakasgaia eta abar hezkuntza-curriculumaren gaiak dira, pentsamendua sorrarazten dutenak eta espiritu kritikoa sortzen laguntzen dutenak.

Eskoletan ekidinezina da kezka sozialak sartzeara, baina printzipio pedagogiko batzuen arabera haurrak babestu behar ditugu etsaitasuneko lerratzearen, oldarkortasunaren, doktrinamendua- ren eta sinplifikazioaren aurrean. Ildo horretatik, eta betiere moderazioaren testuinguruan, irakasleek kudeatu egin behar dute gaurkotatutako ikasge- lan sartzeara, demokraziaren eta bizikidetzaren balioetatik abiatuta.

Ezin dugu ahaztu hezkuntza dela gizartearen aurrerapenak duen bide onena gure lurraldean eskuin politikoak hartu duen joera zentralista, doktrinatzailer eta kontrolatzailearen aurrean, bereziki “gurasoen pina” deitutakoa dela-eta, zeina eduki jakin batzuen aurkako beto borobila besterik ez baita. Guztiz garrantzitsua da irakasleen eta hezkuntza ikuskatzaileen profesionaltasunarekiko babesa eta konfiantza erakustea eta sendotzea, gure hezkuntza-sisteman konfiantza edukitzea eta haur guztiendako prestakuntza integrala bermatzea.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu- a premiatzen du:

1. Zain dezan betetzen direla Espainiako Konstituzioaren 27.1 artikulua –“denek dute hezkuntzarako eskubidea, eta irakaskuntza-askatasuna

aitortzen da”– eta 27.2 artikulua –“hezkuntzaren helburua pertsonaren nortasuna osotara garatzea izango da, bizikidetzaren printzipio demokratikoen errespetuan eta oinarritzko eskubide eta askatasunen errespetuan”–.

2. Zain dezan betetzen direla Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legea, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko 8/2017 Foru Legea eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legea. Izan ere, lege horiek Nafarroan hezkidetzaren sistema bat bermatzen dute, berdintasunaren eta genero indarkeriari aurrea hartzearen edukia derrigorrez ezarrita.

3. Jarrai dezan Skolae programa ezartzen diru publikoaz finantzaturako ikastetxe guztietan eta indar ditzan programa hori eta Hezkuntza Departamentuak ezarritako LGTBI protokoloak betetzea bermatuko duten neurriak.

4. Berma dezan pentsamendu-pluraltasuna eta bizikidetasun-, begirune- eta tolerantzia-printzipioen arabera heziketa, zeina baita gizarte demokratiko batek derrigorrezko hezkuntzako ikasle guztiei eman behar dena, Europako Kontseiluak gomendatzen duen bezala.

5. Kanpaina bat susta dezan, irakasleen profesionaltasunari eta independentziari babesa emateko, horren bidez susta dadin pentsamendu askatasunean eta ikasleen gaitasun kritikoaren garapenean oinarritutako hezkuntza.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentariak: Nuria Medina Santos, María Solana Arana, Patricia Perales Hurtado, Ainhoa Aznárez Igarza eta Marisa De Simón Caballero



**Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da indartu dezan ospitaleratuta dauden edo etxeko arreta behar duten ikasleei laguntza emateko programa, 3tik 6 urtera bitarteko zikloa barne.**

*HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 15ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da indartu dezan ospitaleratuta dauden edo etxeko arreta behar duten ikasleei laguntza emateko programa, 3tik 6 urtera bitarteko zikloa barne”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du, Hezkuntza Itunak III. apartatuan (4g puntuan) jasotzen duenari jarraikiz, ospitaleratuta

dauden edo etxeko arreta behar duten ikasleei laguntza emateko programa indartu dezan, eta, hartara, 0tik 6 urtera bitarteko etapa programa horren barruan sar dezan, halako moduan non zerbitzu hori bermatuko baitzaie eskaera hori egiten duten 3tik 6 urtera bitarteko neska-mutikoei.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du, Hezkuntza Itunak III. apartatuan (4g puntuan) jasotzen duenari jarraikiz, etxeko laguntza Hezkuntza Departamentuko irakasleekin ematearen bideragarritasunari buruzko azterlana burutu dezan”.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lantalde misto bat sor dezan enpresa eta pertsona ekintzaileei beren jarduera ezartzeko eta garatzeko erraztasunak emanen dizkieten neurriak diseinatze aldera.**

*GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 17an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lantalde misto bat sor dezan enpresa eta pertsona ekintzaileei beren jarduera ezartzeko eta garatzeko erraztasunak emanen dizkieten neurriak diseinatze aldera”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lantalde misto bat sor dezan, parte hartu nahi duten toki entitateekin eta erakunde profesionalekin lankidetzan, Nafarroako Foru Komunitateko enpresa eta pertsona ekintzaileei beren jarduera ezartzeko eta garatzeko erraztasunak emanen dizkieten neurriak diseinatze aldera”.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, erretzeari uzteko tratamenduan vareziklina kostuarekiko eraginkorren den aukera gisa finantzatzeari buruzkoa.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, erretzeari uzteko tratamenduan vareziklina kostuarekiko eraginkorren den aukera gisa finantzatzeari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 25eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-19- PES-00121 idatzizko galdera aurkeztu du, zeinaren bidez "informazioa eskatzen baitu tabakoaren aurkako tratamenduaren finantzaketari buruz". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Farmazia Zuzendariordetzak honako informazio hau eman digu:

Osasun Ministerioak, Sendagaien Prezioak aztertzen dituen Ministerioarteko Batzordearen bidez, 2019ko irailaren 30ean eta 2019ko urriaren 30ean bildu baita, erabaki zuen CHAMPIX (bareniklina) eta ZYNTABAC (bupropiona) sendagaiak finantzatzea, honako baldintza hauetan:

Finantzatzeko baldintzak:

- Sendagaiaren preskripzioa egiteko, pazienteek tabako-mendekotasuna gainditzeko laguntza-programa batean (banakakoa eta/edo taldekkoa) sartuta egon behar dute, eta programa horrek autonomia-erkidegoetan/INGESA edo mutualitatean ezarrita egon behar du.

Gainera, pazienteek honako ezaugarri hauek bete beharko dituzte:

Erretzeari uzteko berariazko motibazioa duten pazienteak, azken urtean erretzeari uzteko saiakera egin izana egiazta dezaketenak.

Egunean 10 zigarro edo gehiago erretzen dituzten eta, gainera, Fagerström testaren bidez kalifikatutako  $\geq 7$  mendekotasun-maila handia duten pazienteak.

- Urtean erretzeari uzteko ahalegin bat finantzatzeko da gaixo bakoitzeko, laguntza farmakologikoarekin.

Batzordeak erabakitako beste betekizun batzuk:

- Medikamentu horren preskripzioa autonomia-erkidego/INGESA edo mutualitate bakoitzean tabakoa erretzeari uzteko programan hala definitzen diren sendagile profesionaletara mugatzen da.

- Preskripzio bakoitza ontzi baten bidez egingen da, hau da, hilabeteko tratamenduaren baliokidea izanen da, eta tratamenduaren eraginkortasunaren bilakaera baloratu beharko da hurrengo errezeta eman aurretik.

- Tratamendua gehienez ere hamabi astera artekoa izanen da, fitxa teknikoan deskribatuta dagoen bezala.

- Sendagai hori Osasun Sistema Nazionalaren errezeta elektronikoko sistemaren bidez emanen da.

- Finantzaketa hori fakturazio-izendegian gauzatuko da, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Egiazta daitekeenez, finantzaketa baldintzak Nafarroak 2017an ezarri zituen ia berberak dira. Izan ere, Lurralde Arteko Kontseiluko Farmazia Batzorde Iraunkorrean, erabakigarria izan zen Nafarroak bere emaitzak aurkeztu izana, progra-

ma urtebete funtzionatzen egon ondoren, Osasun Ministerioak sendagai horiek farmazia-prestazioan nola sartu negoziatzen hasteko erabakia har zezan.

Cristina Ibarrola andreak aipatzen duen artikulua Trapero doktorearen Cost-effectiveness of alternative smoking cessation scenarios in Spain: results from the EQUIPTMOD da, eta 2017an egin zen. Ministerioak ezarri dituen prezio berriekin,

ondorioak guztiz desberdinak dira. Izan ere, urriaren 30eko Sendagaien Prezioak aztertzen dituen Ministerioarteko Batzordean Trapero andreak beste azterlan bat erantsi zitzaigun, Osasun Ministerioak propio eskatua, eta haren arabera prezioen agertoki berri horrekin kostu-eraginkortasun handiena duen aukera bupropion da.

Laborategiaren salmenta-prezio berriak:

	PVL berriak
CHAMPIX 0,5 mg, PILULAZ ESTALITAKO KONPRIMATUAK , 56 konprimatu	67,02
CHAMPIX 0,5 mg eta 1 mg, pilulaz estalitako konprimatuak, 11x 0,5 mg + 14 x 1 mg + 28 x 1 mg	62,05
CHAMPIX 1 mg, pilulaz estalitako konprimatuak, 112 konprimatu	
CHAMPIX 1 mg, pilulaz estalitako konprimatuak, 56 konprimatu	64,54
ZYNTABAC 150 mg, askapen luzatuko konprimatuak , 30 konprimatu	10,41
ZYNTABAC 150 mg, askapen luzatuko konprimatuak , 60 konprimatu	20,82

Gogoeta ekonomiko horietaz gainera, komeni da gogoratzea paziente batzuek, beren ezaugarriengatik edo kontraindikazioengatik, ezin izanen dutela bareniklinarik hartu, eta alderantziz.

Bestalde, aurkeztutako azterlanak ez du aztertzen Nafarroak finantzatzen duen eta oraingoz Ministerioak finantzatuko ez duen beste aukera, nikotinaren ordezkari adabakiena, zeinek hasiera batean bupropionak eta bareniklinak baino askoz kontraindikazio gutxiago eta ondorio kaltegarri potentzial gutxiago baitituzte; izan ere, Farmaziako Zuzendariorde eta hornitzaileen artean lehiaketara ateratu zuten aukera hori, eta oso prezio lehiakorra lortu zuen.

Hortaz:

Osasun Departamentuak ez du tabakoaren mendekotasuna gainditzeko sendagaien finantzaketa-estrategia aldatzeko asmorik. Urtarriletik aurrera, botika horiek farmazia-prestazioan sartzen direnean, prezioak nabarmen jaitsiko dira, gaur egungoekin alderatuta; beraz, tabakoa erretzeari uzteko programa gaur egun baino askoz ere merkeago aterako zaigu, eta tratamendu-aukera guztiak finantzatzen jarraituko dugu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## Galdera, erizaintzako azken Lan Eskaintza Publikoari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, erizaintzako azken Lan Eskaintza Publikoari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 25eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 10-19-PES-00122 informazio-eskaera egin du, zeinaren bidez "erizaintzako lan eskaintza publikoaren xehetasunak eta kronograma" eskatzen baititu. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

- Erizaintzako azken lan-eskaintza publikoa dela-eta egindako izapideen eta administrazio-egintzen xehetasuna eta kronograma, bai eta prozeduraren parte bakoitzean izandako atzerapenen zergatiak ere, oposizioa azterketaren egunetik aitzina.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak erizain lanpostuetarako egindako deialdia, 2013-15-16ko LEPari dagokiona.

Erizaintzako deialdi horren oinarriak 2017ko irailaren 25eko NAOan argitaratu ziren, 185. zenbakian.

Abenduaren 28an deialdi horretan onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratu zen. 2018ko martxoaren 1ean argitaratu zen behin betiko zerrenda.

Azterketa 2018ko martxoaren 24an egin zen.

Ondoren, kronologikoki zehaztuta, emaitza hauek argitaratu dira:

Oposizio-faseko behin-behineko emaitzak: 2018-03-26

Alegazioei erantzuten zaie.

Oposizio-faseko behin betiko emaitzak: 2018-05-03

Hilabeteko epea errekursoak aurkezteko eta prestatzeko. Araubide Juridikoaren Zerbitzuak hiru hilabete baino gutxiago ematen du horiek guztiak ebazteko.

Oposizio-faseko behin betiko emaitzak, errekursoen ondotik: 2018-09-13

Oposizio-fasea gainditutako 2.900 hautagaiei buruzko espedienteak barematzen 6 hilabete eman ondoren, baremazio-faseko behin-behineko emaitzak argitaratzen dira: 2018-12-19

Oposizio-faseko behin betiko emaitzak, epaiaren ondoren: 2019-04-24 (oposizio-fasea hasieran baino 35 hautagai gehiagok gainditu dutela deklaratu da)

35 izangaiak barematu ondoren, baremazio-fasearen behin-behineko emaitzak argitaratzen dira, epaiaren ondoren: 2019-04-26 (lan hau aurreikuspenen arabera aurreratu gauen)

Hil honetan alegazio guztiei erantzuten zaie eta baremo-faseko behin betiko emaitzak argitaratu dira: 2019-05-30

Azken emaitza: 2019-05-30

Lanpostu hutsak hautatzeko ekitaldia prestatzea. Lanpostuen hautaketa 2019-06-13an argitaratu zen, eta izangaiek 10 egun balioduneko epea izan zuten beren hautaketa egiteko.

Behin betiko emaitzak argitaratu ondoren, hautagaiek hilabeteko epea izan zuten baremoari errekursoak jartzeko. Araubide Juridikoaren Zerbitzuak hiru hilabete eman zituen horiek guztiak ebazteko. Epaitegian apelazio-errekurso bat aurkeztu zela jakin ondoren, epatze-faltagatik, hilabete inguru itxaron zen epaiaren emaitza ezagutzeko.

Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak ezespene-epaia eman zuen 2019ko urriaren 18an.

Epai jakinarazi eta hurrengo egunean, baremoaren behin betiko emaitzak, gora jotzeko errekursoen ondorengoak, prestatu eta argitaratu genituen: 2019-04-11

Amaierako emaitza, gora jotzeko errekursoen ondorengoak: 2019-04-11

Aurreikuspenen arabera, izendapen proposamena azaroaren 20an argitaratuko da NAOan.

Beraz, erizaintzako hautaketa-prozesu honen garapen-kronograma ikusita, ondoriozta daiteke ezen, jarritako errekurtsoen eta erreklamazio judizialaren ondorioz, emaitzen argitalpen ugari egin direla eta, zenbaitetan, itxaroteko neurri zuhur txikiak aplikatu direla.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n.

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## **Galdera, Nafarroako Erriberan dagoen helduentzako euskara-ikastaroen eskaintzari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa de Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Erriberan dagoen helduentzako euskara-ikastaroen eskaintzari buruzkoa. Galdera 2019ko urriaren 25eko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2019ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoari atxikitako foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak 10-19/PES-00123 informazio-eskaria aurkeztu du. Hona hemen horri buruz informatu beharrekoa:

#### 1. Aurrekariak:

2018ko azaroa. Cascanteko elkarte bateko kideak harremanetan jarri ziren Euskara Atalarekin, euskara ikasteko helduentzako prestakuntza eskatzeko.

#### 2. 2019-20 ikasturterako plangintza

– 2019ko apirilean eta maiatzean: Funtzionamendu-plantillak prestatzea

Ikasketak Antolatze Atalak, HOHl-ak azken hiru hilekoan egindako eskaintza kontuan hartuta, proposamena egin zion Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzuari, hurrengo ikasturteko funtzionamendu-

plantilla prestatzeko. Tuterako funtzionamendu-plantilla Cascanten euskara-arretarako ordutegi-kargaren erreserbarik egin gabe egin zen.

– 2019ko ekainaren 10ean

Euskara Atalaren mezu bat jaso zen, Antolamendu Atalari zuzendua. Mezu horretan, Tuterako HOHl-irako datorren ikasturteko behin-behineko lanpostuetako bati euskara-profila esleitzeko aukera aztertzen da, Cascanteko prestakuntza-premiei erantzuteko. Aukera horrek Hezkuntzako zuzendari nagusiaren onospena du.

– 2019 ekainean.

Premisa horrekin, Ikuskaritza Zerbitzuko plantillaren arloak baimena eman zuen, ikastetxeko ikuskatzaileak jakinarazita, Tuterako HOHl-ko plantillak lanaldi osoko irakasle bat izan zezan 2019/2020 ikasturterako, euskara-eskakizunarekin, Cascanten euskarazko hiru ordu irakasteko.

- 16 ordu eta erdi, gaztelania irakasteko bigarren hizkuntza gisa.

Premisa horiekin, ekainean itxiztat eman ziren helduen kasuan aldatu ezin diren funtzionamendu-plantillak, derrigorrezko irakaskuntzak ez direlako.

Funtzionamendu-plantilla itxiekien hautematen diren behar berriak baloratuko egingen dira, ikuste aldera ikastetxera bideratutako baliabideekin erantzun daitezkeen edo datorren ikasturterako atzeratu behar diren.

– 2019ko irailaren 19an

Tuterako HOHIko mezu bat jaso zen, zeinean jakinarazten baita Castejonen eta Tuteran euskarazko prestakuntzako behar berriak antzeman direla.

HOHIak eskatzaileen eskaerak jaso zituen eta bilera batera deitu zitzaien interesdunen benetako kopurua eta maila egiaztatzeko (mailako proba edo IHB proba ginez).

Honako hauek izan ziren IHBaren emaitzak.

<b>Castejón:</b>	<b>Tutera:</b>
Izena emandakoak: 48	Izena emandakoak: 69
IHB: 39	IHB: 53
0 maila: 36	0 maila: 39
1 maila: 3	1 maila: 14

– 2019ko irailaren 25ean.

Ikastetxeko ikuskatzaileak bilera bat egin zuen HOHIko zuzendariarekin, ikasturte-hasierako antolaketa-alderdiak aztertzeko. Hiru herri horietan euskaraz prestatzeko premiei arreta emateko gaia jorratu zen, eta bi aukera aztertu ziren:

- Ikasturte honetan Cascanteko eskariari baka-rrik erantzutea eta Tuterako eta Castejongo behar-rrak datorren ikasturteko funtzionamendu-plantillak egiteko prozesura arte atzeratzea.
- Hiru herrietako beharrei erantzutea, ikaste-txearen eskaintzan zehaztutako beste behar ba- tzuei erantzun gabe.

– Urriaren 4an.

Antolamendu Atalaren eta Carlos Tayar ikaste- txeko ikuskatzailearen artean egoeraren balora- zioa egin ondoren, ikastetxeari mezu bat bidaltzea erabaki zen, Tuterako eta Castejongo euskarazko prestakuntzaren arreta 2020/2021 ikasturterako a- tzeratuko zela jakinarazteko.

– Urriaren 15ean.

Tuterako HOHIko zuzendariari galdetu zitzaion ea langileak prest zeuden Tuterako eta Castej- ongo euskara-beharrei heltzeko: plantillaren barne- doikuntzak egin ondoren eta lehentasunezko prestakuntza-jarduerari erantzun gabe. Premia horri honako denbora hauen arabera ekin zekiok- en:

- Cascante: 2 talde, 1,5 orduko dedikazioarekin talde bakoitzarentzat.
- Castejón: 2 talde, 1,5 orduko dedikazioarekin talde bakoitzarentzat.
- Tutera: 3 talde, 1,5 orduko dedikazioarekin talde bakoitzarentzat.

Horrenbestez, Castejonen eta Tuteran euska- raz ikasteko jarduerari hasiera eman zitzaion 2019/2020 ikasturterako.

Iruñean, 2019ko azaroaren 11n.

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gur- pegui

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Lantaldea, jarduera ekintzaileak abiarazteko administrazio-prozesuak arindu eta hobetzeko.**

### *GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAK EZETSI EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak, 2020ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, ezetsi egin du jarduera ekintzaileak abiarazteko administrazio-prozesuak arindu eta hobetzeko lantaldea sortzeko proposamena, zeina Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu baitzuen.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Mahaiaren 2020ko urtarrilaren 20ko erabakia, datu-babesari buruzkoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Datu-babeserako ordezkariak, 2020ko urtarrilaren 16an, jarraipen-txosten bat eman du, 2019. urtean harturiko neurriei buruzkoa. Azaltzen du, besteak beste, ezen datu-babeserako Nafarroako Parlamentuko ordezkariaren figuraren araubidearekin bat (2018-09-14ko 110. NPAO), datu-babeserako ordezkaria Nafarroako Parlamentuko Mahaiak izendatuko duela, legelari nagusiak proposaturik, urtebeterako. Horretarako, legelari nagusiak proposatzen du Nafarroako Parlamentuko legelari Isabel Cañas Palacios andrea hautatzea.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikularekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Adieraztea jakinaren gainean dagoela datu-babesaren alorrean 2019. urtean harturiko neurriei buruzko jarraipen-txostenari dagokionez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Tratamendu Jardueren Erregistroa onestea (Nafarroako Parlamentuaren webgunean argitaratuko da).

**3.** Legebiltzarreko legelari Isabel Cañas Palacios andrea hautatzea datu-babeserako Nafarroako Parlamentuko ordezkari.

**4.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

